

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Sustapen Departamentuak Iruñeko ingurabideko iparraldeko biribilguneen segurtasuna hobetuko du

*Berriozarko semaforoek araututako bidegurutze bihurtuko da eta Txantrea, Antsoain eta Artikako biribilguneak (urbanizazioa eta hirigunea) espiral formako glorietetan*

Viernes, 13 de marzo de 2015

Sustapen Departamentuak Iruñeko ingurabideko (PA-30) iparraldeko egungo bost biribilgunetan zenbait hobekuntza egitea aurreikusten du, Ezkabako tunelen eta Agustinos poligonoaren sarbidearen artean, zer-nolako trafikoa dagoen aztertu ondoren eta bertako segurtasuna hobetzeko asmoz.



Zehazki, haietako lau (Txantrea, Antsoaingo urbanizazioa, Antsoaingo hirigunea eta Artika) espiral formako glorietetan edo "turbobiribilguneetan" bihurtu nahi ditu, eta haien barnean zaudela ezinezkoa da erreiez aldatzea. Gainera, Berriozarrera sartzeko egungo biribilgunea gurutz erako elkargune batean bihurtzea aurreikusi du semaforoekin araututa, eta baita hobekuntzak egitea ere Agustinosko poligonoan eta Ezkabako tulenetarako sarbidekoan.

Jarduera horiek guztiek hiru milioi euroko kostua dute gutxi gorabehera (325.000 glorietak bakoitzeko gehi 1,5 milioi Berriozarko semaforoekin araututako elkargunerako). Proiektuen idazketa laster batean lizitatuko da, eta zazpi hilabetetan prest izango dira, obrak 2016. urtetik aurrera egiten hasteko asmoarekin.

Sustapen kontseilari Luis Zarraluquik gaur goizean prentsaurrekoan [azaldutako](#) neurriak bi faktoretan oinarrituta daude bereziki: alde batetik, biribilguneetan dagoen ezbehar-maila (2013an 234 istripu izan ziren, haietatik 25 heriotzekin, motorzaleak batzen diren bi zati daude eta arriskutsuak izan daitezkeen beste hiru), nahiz eta istripu asko larriak ez diren; bestetik, trafiko gehien dagoen eguneko orduetan izaten diren zirkulazio-arazoak (07:30etik 09:30era, 13:00etatik 15:00etara eta 17:30etik 19:30era).

## Espiral formako lau glorieta

Holandan erabiltzen hasi (250ekin, finkatuta dago jadanik), eta Europako beste herrialde batzuetara zabaldutako espiral formako glorietek biribilgunearen barnean bertan erreiz aldatzea eragozten dute. Hala, barneko errei-aldaketen ondoriozko istripurik ez dago; ohikoenak dira haiek, lehentasunak ez errespetatzeagatik.

Horrenbestez, kanpoaldeak, eskuinaldera jotzeko edo aurrera egiteko bakarrik balio du eta barnekoak, aurrera egiteko, ezkerrera jotzeko edo noranzkoaz aldatzeko.

Tradizionalen aldean, abantailak dituzte, esaterako: bolumen handiagoa, gidatzeko kezka txikiagoa, erosotasun eta segurtasun handiagoa; izan ere, puntu gatazkatsuak erdira baino gutxiagora murrizten dira (lau hankeko glorieta-mota batek dituen 22tatik espiral formako glorietek dituzten 10era bakarrik), eta eratzun formako galtzadaren barnean mugimendu bihurrituak saihesten dira.

Beharrezkoa da, hala ere, haien erabilerara ohitzea, "ohiko gidariaren" zirkulazioak azpiegituraren bolumena igotzen baitu eta arriskua nabarmen jaitsi. Alde horretatik, bide-zati horretan sartzeko apustua egin da ezaugarri homogeenekin; izan ere, glorietak jarraian egoteak hain berritzaileak diren elkargune batzuk bizkorrago ikastea erraztuko du, Nafarroan ez ezik, baita Estatuko bide-sarean ere.

Lau biribilguneek (Txantrea, Antsoingo urbanizazioa, Antsoingo hirigunea eta Artika) neurri ezberdinak beharko dituzte beren egokitzapenerako, nahiz eta beren erdialdeko oinezkoen babesgunea aldatuko den. Txantreako glorieta kasuan, gainera, PA-30eko irteera errei batean geldituko da San Kristobal kaletik; eta Antsoingo urbanizaziora sartzekoan, zuzeneko errei bat eransten da hirigunetik egindako sarbidean eskuinalderako biraketak egiteko.

Gainera, Antsoingo alde zaharrera sartzeko glorieta bigarren-mailako bideetatik sartzeko erriak bikoizten dira eskuinaldera jotzeko zuzeneko biraketak egin ahal izateko; Artikako glorieta, berriz, Antsoingo urbanizaziora joateko hego-mendebaldeko hanketik egindako irteera mugatzen da eta, aldi berean, hego-ekialdekoa berriz antolatzen.

### Beste hiru biribilgunetako aldaketak

Berriozarko jarduerari dagokionez, egungo glorieta baten ordez gurutze formako elkargune bat jartzea proposatzen da semaforoekin araututa (trafiko gehieneko orduei egokitutako semaforo zikloekin), eta noranzko bakoitzeko hiru errei PA-30eko norabide bakoitzean, gehi itzaroteko erriak ezkerreko biraketarako ingurabidetik irteteko mugimenduetan. Gainera, jadanik badagoen glorieta egun okupatzen duen azalera erabiltzea aurreikusten da zuzeneko errei bat eraikitze eskuinaldera biratzeko lau mugimenduetarako.

Azken jarduera horrekin, egungo gatazka-puntuetatik ez da igaroko; izan ere, baimendutako mugimendu liberik ez izatean, arrisku gutxiago sortzen da. Gainera, elkarguneak aurreko glorieta baino bolumen handiagoa izango du, eta lotura bat baino merkeagoa da.

Aldaketak Landabenetik Berriozarko biribilgunerako sarbideko adarra kentzea ere dakar; horrenbestez, bertara altxatutako glorieta eliptikoa erabiliz heldu daiteke, baina zuzenean eragin gabe, Berriozarko lotunerako jaitsieraren bideari lotuko baitzaio zuzeneko adar baten bidez. Hala, bihurritutako distantzia nabarmen igotzen da bide-zati horretan egiten diren mugimenduetarako.

Berriozarko lotuneko itogina kentzeak inguruko trafikoa aldatuko du, eta arazo zati bat alboko beste lotune batzuetara pasa ahalko da: altxatutako glorieta eliptikora sartzeko adarrean, biribilgunera sartzeko errei labur bat erantsiz konponduko dena; edo Artiberriko glorieta, espiral formako beste glorieta batean bihur zitekeena aldaketa txiki batekin, edo zati batean semaforoak jarri ahalko ziren gurutze formako elkargune berriarekin koordinatuta.



Txantreako biribilgune berriaren berregitea.

Azkenik, Ezkabako tunelen sarbideko biribilgunean sartzeko neurri txiki batzuk ere proposatzen dira. Neurri horiek dira: hegoaldeko glorieta sartzeko hanken errei bat kentzea; PA-30eko sarbidea berrantolatzea Iruñerriko Mankomunitateko garajeetatik eta Agustinosko industrialdetik ingurabiderako sarbidea kentzea.

### PA-30eko funtzionamenduaren azterketa

PA-30eko III. zatiko funtzionamenduaren azterketak (gelditu egin da bideko segurtasuna, eta zerbitzuaren maila eta kalitatea ebaluatzeko) ingurabideko iparraldea hiru zatitan banatu du: Ezkabako tunelak, erdiko zatia (Txantrea-Orvina glorieta, Antsoaingo biak eta Artikakoa) eta hiriko zatia (Artiberriko glorieta zirkularren eta Agustinosko poligonora sartzeko altxatutako eliptikoaren artean dagoena). Ondoren, egungo geometria aztertu da zenbait lotuneraren bilakaera historikoaren ondoren eta egungo errealitatearen balioespen teknikoa egin da, ibilbideari eta seinaleztapenari dagokionez, bereziki.

Gainera, zirkulazioa aztertu da edukiera-kanpaina baten bidez, eta hura honako honetan datza: zirkulazio handieneko orduetan kamerarekin grabatzea eta eskuz zenbatzea (2014ko urriko eta azaroko ostiraletan hartutako laginarekin) eta mikroazterketa bat bi informatika-programa erabiliz eta izan daitezkeen aldaketen gaineko eragin-azterketa. Azkenik, bide-segurtasuna ebaluatu da, bide-zatiko ezaugarri geometrikoak aztertu dira eta ezbehar-tasaren auditoria.


Aztertutako bide-zatietatik hainbat ondorio atera daitezke. Hala, Ezkabako tuneletako bide-zatian bolumen-arazorik ez dagoela ondorioztatu da, zerbitzu-maila (atzerapenak neurtzen ditu, bideen okupazioa, auto-ilarak...) ona da eta bide-segurtasuneko zenbait arazo ditu, abiadura handiagatik eta tuneletako hegoaldeko glorieta sartzeko eraztun formako galtzadan maniobra desegokiengatik.

Erdialdeko bide-zatiari dagokionez, ondorioztatzen da bide nagusiaren bolumenean zailtasun garrantzitsurik ez dagoela, baina bai lau glorieta zirkularretako bigarren-mailako hanken zati handiengan. Bide-segurtasuneko arazoak gehiegizko abiaduragatik eta glorieta gidariek duten jokabide oldarkoragatik sortzen dira, batez ere. Horrek guztiak Txantrea, Orvina, Artika eta Antsoainetik PA-30 era sartzeko orduan ondorio negatiboak eragiten ditu, auto-ilarak eta zirkulazio handieneko orduetan atzerapena sortuz.

Hiriko zatian sortzen dira arazo handienak. Bide-segurtasunean, Berriozarko glorieta da puntu delikatuena.

Bestalde, Artiberrikoak zama handiegia du eta bertako mugimenduak deskonpentsatuta daude. Azkenik, PA-30eko lotuneetako hanken bolumen-arazoak hauteman dira goizeko zirkulazio handieneko orduetan (mendebaldera), eta eguerdikoetan (ekialdera), eta baita zenbait gorabehera ere bigarren-mailako bideetan ere.


### Galería de fotos



Antsoaingo urbanizazioko biribilgune berriaren berregitea.



Antsoaingo hiriguneko biribilgune berriko planoak.



Artikakoa biribilgune berria.